



Arteca enpresa izan zen atzokoan protesta egin zuenetako bat. ATARIA

Egoera larrian dauden maizterrek ez dute errenta ordaindu beharrik izango

Tolosako etxebizitza babestuko errentariei aplikatuko zaie neurria, ekonomia kalteberatasun egoeran daudenei; apirileko, maiatzeko eta ekaineko errentak etengo dira // 4

Maskarak banatzen ari dira Ibarra eta Alegian haurrentzat

Ibarrako Merkataritza Elkartea eta Aurrera Alegia taldea babesteko materiala ari dira banatzen gaztetxoaren artean, euren portaera txalotzeko // 2

Osasunerako eskubidea lanean ere eskatu dute

Salaketa Eguna deitu zuen atzo euskal gehiengo sindikalak, eta Tolosaldeko hainbat langilek bat egin zuen Laneko Segurtasun eta Osasunaren Nazioarteko Eguneko aldarriekin // 3

Lur Gaineko Sokatira Txapelketa datorren urtean egingo da

Ibarrako Sokatira Taldeak Getxon irailaren 16tik 20ra jokatu behar zen txapelketan parte hartu behar zuen; askorentzat lehen aldia zen // 7



urrate
BERRI ERAIKUNTZAK S.L.

Etxebizitzak
salgai
LIZARTZAN

Bulegoa: Plazaola kalea 2/g LEGAZPI

Tel.: 943 73 05 51

urrateberri@urrate.eus

**Koronabirusak sortutako Alarma Egoeraren aurrean
'Tolosaldeko Ataria'-k informazioa ematen jarraituko du.**

'Ataria'-rekin kontaktuan jarraitzeko
ondorengo hiru bide hauek daude:

Telefono zenbakia: 943 65 56 95

Whatsapp: 687 410 032

Emaila: ataria@ataria.eus

*Bulegoan ez da aurrez aurreko bisitarik onartuko.



ETXEKO LANAK, PAPEREAN

Zizurkilgo Pedro M. Otaño Herri Eskolak lan proposamenak etxeetara paperean bidali ditu. Martxoaren 13az geroztik lan egiteko modu desberdinean aritu dira familia eta irakasleak. Egoera luzatuko dela ikusita, lan egiteko modua aldatu, eta irakasleek hiru asteetarako lan proposamenak paperean banatu dizkiete. Familekin gertuko harremana bilatuz osatu dituzte. Aldiz, ikasle helduenekin aplikazio digital ezberdinak dituzte martxan. Familia guztietara iristeko Zizurkilgo udal langile eta boluntario talde baten laguntza jaso dute. ATARIA



EHUN URTE BETETZEAN

Atzo ehun urte bete zituen Paulina Mugika Esnaola bidaniarrak, eta bisita jaso zuen etxean. 1920ko apirilaren 28an jaio zen Bidaniako Bengoetxe baserrian, eta ondoren, Bidaniako Betelu baserrira ezkondu zen. Bertan bizi da. Egoerak eskutako neurriak hartu eta eguerdian bisita egin zien Agurtzane Zelaia alkateak eta Joxe Erramun Goikoetxea zinegotziak. Herri guztiaren izenean lore sorta eta tarta oparitu zizkieten. ATARIA

Mobilizazioak lan osasuna bermatzeko

Euskal gehiengo sindikalak deitutako Salaketa Egunarekin bat egin dute eskualdeko hainbat langilek

Eneritz Maiz Etxarri

«Lan osasuna bermatu» eta «bizitza defendatu» izan ziren atzo gehien errepikatu ziren hitzak. Laneko Segurtasun eta Osasunaren Nazioarteko Eguna izan zen, eta Salaketa Eguna deitua zuen euskal gehiengo sindikalak.

Eskualdeko hainbat eta hainbat enpresatan atera ziren langileak kalera. Protestarekin bat egin, eta mezu ezberdineko kartelak eskuan hartuta egin zuten salaketa. Esaterako, Tolosako Arriaran gasolindegiko langileek ere bat egin zuten borroka egunarekin, eta beraien egoera salatu zuten: «Bi hilabete daramatzagu greba mugagabea, soldata duin bat eta bizitza, familia eta lanarekin egokitzen den lan egutegi bat lortzeko».

ELA, LAB, Steilas, ESK, Etxalde eta Hiru sindikatuek *Lan osasuna bermatu, bizitza defendatu* lelopean deitua zuten Salaketa Eguna. Segurtasunak guztiaren gainetik egon behar duela zioten, bai sindikatuek eta baita lan esparru ezberdinetako langileek ere. «Segurtasunak kapitalaren eta interes ekonomikoaren gainetik egon behar du», azpimarratu zuten beste behin. Edota, «osasunik gabe, bizitzeko eskubidea bermatu gabe, ez dago beste ezer. Heriotza dakarren lanak ez du lana izaterik merezi», mezua zabaldu zuten.



Enpresa ezberdinetan kalera atera ziren langileak. ATARIA

Noizbait koronabirusaren krisia igaroko dela diote, eta orduan gizarte moduan «lehenasun berriak» ezarri beharko ditugula. Sindikatuek argi diote, halaber, bizitza jarri beharko dela erdigu-

nean. «Eta, orduan ere, instituzioentzat bizitzak lehenasun izan daitezen mobilizatu beharko dugu. Besteak beste, lanean gure bizitzak behar bezala zaindu daitezen».

GUTUNA

65etik gorakoak, berriro ere, azken kate-begia

Onekako emakumeok gure iritzia adierazi nahi dugu bizi dugun konfinamendu-egoerari buruz, benetan zaila izaten ari dena herritar guztientzat. Baina konfinamendu horren ondorioak, beste behin ere, ez dute denek era berean pairatzen. Oso kontziente gara emakume askorentzat, adinean aurrera doazentzat barne, zer suposatu behar duen espazio berean konfinatuta egoteak, eguneko 24 orduetan, erasotzailearekin bizi-

tzen. Horren erakusgarri dira egoera honen babesean gertatzen ari diren eraso matxista ugariak.

Denentzat, oro har, baina bereziki emakume horientzat, deskonfinamendu prozesua oso garrantzitsua da, besteak beste, amesgaizto horren aurrean argi pixka bat ikusten has daitezkeelako.

Hala ere, duela gutxi, konfinamendua mantentzeko ardura-dun zuzenei entzuten ari gara irteera mailakatua izango dela, eta adin irizpideekin, beste era batera esanda, badiirudi 65 urtetik gorako pertsonak, berriro ere, gi-

zarte honen azken kate-begia izango garela.

Gure ustez, neurri horiek ez dira inolako osasun irizpideren arabera, eta zalantzarik gabe, irizpide horiek kontuan hartu beharko lirateke. Bestalde, herritarren erabateko izaera dugu, eta, beraz, gure erabakiak hartzeko eta errespetatuak izateko eskubidea dugu. Nolanahi ere, osasun irizpideak ez dira soilik koronabirusaren aurkako defentsaren ikuspegitik hartu behar, baizik eta kontuan hartu behar da gure osasun fisiko, psikologiko eta moralarentzako ere. Adineko pertsonentzat, ere,

aire zabaleko mugikortasuna oso garrantzitsua da. Hala aholkatzen dute medikuntzako arduradun askok, psikologoek, geriatrek, adinekoen ohiko gaixotasun kronikoei aurre egiteko neurri gisa. Era berean, behar bezala egiaztatuta daukagu egoera larrien aurrean dugun erantzukizuna, gure familien eta gizartearen beraren defentsan, eta horrek bermatzen du osasun arauak betetzen direla.

Horrekin batera, proposatzen dugu gure Osasun Etxeetan, denbora eta espazioa ditugun heinean, adinekoei ere dagozkien testak aplikatzea, zer egoe-

ratan gauden jakiteko eta, beraz, gutako bakoitzaren auzoaren edo udalerriaren mapaketa bat izateko, COVID-19ren hedatze mailari eta egoerari dagokienez, horrela, osasun irizpideen arabera tratatu ahal izateko. Neurri hori edo antzekoa aldarrikatzen dugu, halaber, langileontzat, COVID-19ren kontrolari aurre egiteko erabakia izan baitaiteke. Osasun Sistema Publikoak, gaur egun, nahikoa informazio digitalizatua du, eta informazio hori praktikan jartzeko arazo larririk ez dago.

Oneka Euskal Emakume Pentsionisten plataforma

Udalaren arabera, ez da arratoi erasorik ezta hozkarik egon

WhatsApp bidez zabaldu zen mezu batean herritar batek dioenez, arratoiak ikusi dira kaleetan, herritarrak erasotzen

J. Artutxa Dorronsoro

Azken orduetan zabaldutako mezuaren haritik, udaletik argitu nahi izan dute ez dela hozkarik izan. «Zoramen egoera» horretan, pertsonaren oinaren aurka egin zuen talka animaliak eta izututa, ondoren, alde egin zuen. Herritarrak berehala gertatutakoaren berri eman zuen udalean, eta udaletik ere argibide guztiak eman zitzaizkion.

Tolosako Udalak urtero egiten ditu arratoiaren aurkako kanpainak, urteko sasoi ezberdinetan. Konfinamendu egoera honetan gainera, ahalegin berezia egiten ari da, lur azpiko bizia azalera-tzen ari delako. Hala, duela aste batzuk ekin zioten arratoiaren aurkako produktuak herriko eremu ezberdinetan botatzeari.

Arratoiak hiltzeko erabiltzen den pozoia egarria eragiten die arratoiari eta 4-7 egunez hilzorian uzten ditu. Udalak azpimarratu duenez, «tolosarren lasaitasunerako, arratoiaren ohiko portaeran ere eragina du pozoia, ihes egiteko gaitasuna galtzen dute, eta noraezean ibiltzen dira, baina ez dute erasotzen, jendearekin izutzen direlako».

Arratoiaren aurka erabiltzen ari diren produktuak animalia txiki-kientzat baino ez dira kaltegarriak, baina udala kontu handiz ari da, kalean dauden gainerako animaliak ez kaltetzeko, katuak, esaterako. Arratoiaren aurkako kanpainak asteak daramatza martxan, eta udalak lanean jarraituko du izurritea ahalik eta arinen desagertzeko.

Bestalde, udal arautegiaren arabera, debekatuta dago kaleko animaliei kalean jaten ematea. Osasun alarma egoeran, ordean, baimendu egin da aukera hori. Horretarako, baina, beharrezkoa da elkarte modura antolatuta egotea. «Jada sei elkarte eskatu dute kaleko katuei jaten emateko baimena, eta horiek bakarrik dute aukera». Gainera, modu koordinatuan egiteko eskatu zaie. «Egunero bat atera daiteke kalea, eta inola ere ez taldean».

Maizter batzuek ez dute errenta ordaindu beharko

Krisiaren eraginagatik, egoera larrian dauden etxebizitza babestuko errentariei aplikatuko zaie neurria; telematikoki aurkeztu beharko dituzte eskabideak.

Josu Artutxa Dorronsoro

Duela bi aste modu telematikokoan ospatu zen Tolosako Udaleko ezohiko osoko bilkura. Bertan, aho batez adostu eta onartu zen Eusko Jaurlaritzak etxebizitza arloan hartutako neurriekin bat egitea; ondorioz, Tolosako etxebizitza-parke publikoetako alokairu publikoko etxebizitzetan bizi diren eta ekonomia kalteberatasun egoeran dauden maizterrek ez dituzte, aldi batean, alokairua eta komunitate gastuak ordaindu beharko.

Antolakuntza alorreko zinegotzi arduraduna den Xabier Balerdik adierazi zuenez, Covid-19aren hedapen azkarrak aurrekaririk gabeko osasun alerta baten menpe jarri ditu tolosarrak. «Herritar ugari ari dira egoeraren kalteak jasaten, osasun krisi honek eragin zuzena duela-ko ekonomian, gizartean, ekoizpen-kateetan eta baita herritarren egunerokoan ere».

Behar-beharrezkotzat jo zuten familia eta kolektibo ahulenak babestea. «Jarduera ekonomikoaren geldiarazteak maizterrek gastuei aurre egiteko gaitasunik gabe utzi dituen kasuetan, eten egingo dira apirileko, maiatzeko eta ekaineko errentak. Horrenbestez, neurri honen onuradun izango dira, osasun-larrialdi egoeragatik langabezia gelditu direnak, aldi baterako enplegu-erregulazio espediente batean daudenak edota autonomoak direnak eta bere diru-sarrerak %40 edo gehiago gutxitu zaizkienak».

Eskabideak maiatzaren 31ra arte egin ahal izango dira, baina data luzatu ahal izango da, alarma-egoera luzatzen bada. Eskae-
rak era telematikokoan aurkeztu beharko dira, www.tolosa.eus webgunearen bitartez, eskaera inprimakia beteta. Eskaera telematikoa egiteko aukerarik ez dutenek edo zalantza bat dutenek, aurrez aurreko arreta zerbitzua etenda dagoela kontuan izanda, etxebizitzak@tolosa.eus helbidera mezua bidaltzea eskatu die udalak.

Eskaera orriarekin batera, maizterren erantzukizuneko



Olatz Peon alkateak bere bulegotik egin zituen adierazpenak; zinegotziek, berriz, bakoitzak bere etxetik. TOLOSAKO UDALA

adierazpena eta langabezia egoeraren ziurtagiria (langabezia egoteagatik jasotzen den prestazioa azaltzen duena) atxiki beharko dira. Autonomoen kasuan, Foru Ogasunaren ziurtagiria ere gehitu beharko da.

ERAGINKORRAGOAK ETA GARDENAGOAK

Ezohiko egoera ezarri aurretik ospatu zen azken osoko bilkura otsailean izan zen, inauterien aurretik. Orduan, udaleko kideen informazio publikoko eskubidea arautzen duen araudia onartu zen. Gardentasun eta gobernu onaren printzipioei jarraituta, udalbatza osatzen duten zinegotzi guztien informazio eskubideak bermatu eta arautzeko helburuarekin sortu zen. Udala eraldaketa prozesu erabakigarri batean murgilduta dago, egitura berria txertatu da eta ia erabat ezarria dago administrazio elektronikoa: erregistro elektronikoa guztiz operatibo dago, udal espediente ia gehienak elektronikoki kudeatzen dira jada, jakinarazpen elektronikokoak errealitate bat dira eta sinadura elektronikoa ere ezarrita dago.

Eguneroko jardunean eragin-korrangoak eta gardenagoak izateko helburuarekin sortu zen. Izan ere, arau berri honen bitartez, gobernu kide ez diren korporazioko zinegotziek informazio guztia eskura dute eta espedienteak kontsultatzeko aukera dute, fisikoki zein telematikoki. Arautegiak halaber, informazio eskaeren prozedurak eta txostenak egiteko eskariak zein eratan egin behar diren eta eskariei zein epetan erantzun behar zaien zehazten du. «Talde politiko batek, oposizioan edo gobernuan egon, ez du inoiz informazio eskuragarriagorik izan», aitortu zuen Xabier Saizar EAJ-ko zinegotziak. Araudia onartuz gero, espedienteetara sartzeko modua izango dutela ohartarazi zuen.

Bestetik, alkateak adierazi zuenez, «gardentasunaren aldeko urrats eta ariketa garrantzitsua da. Oposizioak informazio eta datu mordoa du eskura, udal gobernuaren lanari jarraipen eta kontrola egiteko». Oposizio kideek begi onez ikusi zuten erabaki hau. Hala ere, «aldi berean, egindako proposamen guztiak kontuan hartu ez zituztela, eta

eman zitzaizen erantzuna harri-garria izan zela» esan zuen Kristina Pelaez EH Bilduko zinegotziak. «Errespetu falta bat iruditzen zaigu erantzunik ez emateko aukera irekita mantentzea, gure proposamena horrelakorik ez egotea zenean». Hori dela eta, aurkako botoa eman zuen oposizioak.

DIRU-LAGUNTZAK, ZERRENDATUTA

Udalaren diru-laguntzen 2020-2022 Plan Estrategikoa ere onartu zen orain bi hilabete udaletxean egindako bileran. Plan hau kudeaketarako tresna bat da, eta urteko aurrekontuetan aurrekusi eta jaso beharreko eta herritarrei eskainitako diru laguntza guztiak zerrendatzen ditu. Sail ezberdinekin elkarlanean garatu da eta diru-laguntzen jarraipen eta ebaluazioa egiteko ere balio du. «Deialdi bateratua egitea lantzen ari gara, beste hainbat herritan egiten den moduan, eta herritarrei horien tramitazioarako laguntza zerbitzuak indartzea ere aurreikusten da», adierazi zuen alorreko zinegotzi arduraduna den Begoña Tolosak.

Hitz gurutzatuak

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
1												
2												
3												
4												
5												
6												
7												
8												
9												
10												

Ezker eskuin

1. Ibilgailuak aparkatzeko tokiak. 2. Infanterian, gradurik apalena duen militar. Eguzkia. 3. Doministikua. Bizkaieraz, aran. 4. Ez du sentiberatasunik, soraio. Banan-banan. Bokak biribila 5. Bokala. Ikaraz. Alfabetoko letra. 6. Zalutasunez, lastertasunez. Pluralean, mila kilo. 7. Txinparta, pindar. Mertzikak. 8. Ogi, hitz elkartzeetan. Ipar Euskal Herrian, laguntza. Euskal Herria, labur adierazita. 9. Zientzia baten oinarrian ezartzen diren printzipio edo hipotesiak. Lore. 10. Mokadu, ahamen. Erreka handiak.

Goitik behera

1. Salaketak. 2. Karta-jokoan erabiltzen den hitza. Pasaiaiko lau barrutietatik bat. 3. Urteko laugarren hila. Internet Protokoloa. 4. Edari bizi. Kurrioloa. 5. Itsasertzeko haitzetan bizi diren arrainak. Arrainen galgarri. 6. Bokak errepikatua. Ibilgia. 7. Mungiako auzoa. Ipurtzulo. 8. Bokala. Abestiak. Kontsonantea. 9. ... sua iragartzen du. Baldinba! 10. Europa ekialdeko herrialdea. Bokak errepikatua. 11. Gipuzkoako herria, Urola Kostan. Urlehortar mota, igela. 12. Ibaietan erabiltzen diren ontzi estu arinak. Heuk.

Herrian daude erantzunak

Herriaren izena osatzen duten letrak erabilia aurkituko dituzu proposatzen dizkizugun definizioen erantzunak (Parentesi artean erantzunen letren kopurua)

OSTANKOA

1. Sarritan, maiz (7)
2. Apaizen soineko luzea (6)
3. Musikalan mota (6)
4. Pluralean, basapiztia mota (6)
5. Asko barneratzen dena (6)
6. Etxe baten azpiko gelak (6)

konfinamenduaren
lehen astea



lehen
hilabetea



bigarren
hilabetea



Saretu eta elkar babesteko deia luzatu dute feministek

Eraso matxista jasaten dutenen eskura bitartekoak jarri eta pertsona horiek babesteko sarea osatu da, besteak beste, Ibarra

Erredakzioa

Ibarako Asanblada Feministak Ez zaude bakarrik kanpaina abiatu zuen konfinamenduaren hasieran. Beste urrats bat eman nahi dute orain: «Biolentzia matxistaren aurrean salaketatik harago joan gaitezen, erasotuak ez ditzagun bakarrik utzi, ez daitezela bakarrik sentitu». Horretarako asanbladaren ustez, «elkartasuna eta inplikazioa» nahitaezkoak dira eta indarkeria matxista jasan dezaketenak bakarrik egon ez daitezen proposamena luzatu dute: sarea osatzea eraso matxista edo sexista baten aurrean babesa eskaintzeko.

Ibarako atari guztietan identifikatu nahi dute babesa eskainiko duen pertsona hori. Horretarako prest agertzen direnen datuak (izena, helbidea, telefono zenbakia) bilduko dituzte 633 39 67 88 zenbakian (WhatsApp bidez, ez deituz). Ondoren, babesa eskaintzeko pertsona bat dagoen atari guztietan jartzeko kartel bat bidaliko du Ibarako Asanblada Feministak, non 633 39 67 88 telefonoa azalduko den. «Saretu gaitezen, saretu dezagun Ibarra eraso matxista eta sexisten aurrean. Neska, mutil, gazte, heldu, zahar, egin dezagun sare komunitarioa», aldarrikatu dute asanbladatik.

HERRIKO ZENBAKIA ZIZURKILEN

Zizurkilgo Udalak eguneko 24 ordutan martxan egongo den telefonoa jarri du indarkeria pairatu dezaketen herritarren eskura:



Anoetan eskualdeko mugimendu feministak martxoan egindako ekitaldia. J.M.

663 77 97 27. Udaleko Berdintasun sailatik aipatu dute herriko telefono zenbaki bat izateak «gertutasuna» dakarrela. Deiak egin eta WhatsApp mezuak bidali ahal izango dira zenbaki horretara.

Herriko telefonoaz gainera, 112 zenbakia eta emakumeentzako (900 840 111) eta ume-nerabeentzako (116111) telefono zenbakiak ere gogoratu dituzte. Herriarren artean informazio hau emateko kartelak zabaltzen ari da udala egun hauetan. Euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta arabieraz ageri da informazioa bertan.

TESTIGANTZA BILKETA IRURAN

Hilabete pasatxo da konfinamendua hasi zela. Hori dela eta galderak luzatu dizkie Irurako Emakume Taldeak herriko neska, gazte, heldu eta adinekoei: «Eta zu nola ari zara bizitzen egoera hau? Bakartuta? Familian? Lanean? Zaintzan? Gaixorik?».

Kontatzeko ehunka istorio daudela uste du Irurako Emakume Taldeak eta hori dela eta herriko emakumeak animatu ditu kontakizuna egitera. Horretarako testu, argazki, bideo eta audioak bidali ahal izango dira irurakoemakumeak@gmail.com helbidera.

GUTUNAK

Jar dezagun zaintza erdigunean

Hilabete pasatxo da COVID-19aren pandemia-
ren iritsierak gure egunerokoa goitik behera aldatu zuenetik, eta guri ere kosta zaigu errealitate honetara egokitzea.

Pandemiaren ondorioz, kontrol neurri zorrotzak ezarri dituzte, eta militarizazioaren bidez, gure gorputzak, gure lurraldeak eta gure bizitzak goitik behera kontrolatzeko mekanismoak jarri dituzte indarrean. Horren ondorioz, elkartzeko, konspiratzeko eta borrokatzeko eremuak kendu dizkigute, baita Matrakako kideoi ere. Ez pentsa, hala ere, geldi gaudenik.

Zenbait instituzio eta agintarien diskurtsoek gerran gaudela sinetsarazi nahi badigute ere, hau ez da gerra bat. Hau zaintzari eta osasunari lotutako kontu bat da, azken urteetan aldarrikatzen ari garena azaleratu duen krisi bat; kapitalismoak eragindako beste krisi bat.

Nola da posible erresidentzietako langileek edota ospitaleetako langileek testik egin ez dietela salatzea? Nola da posible osasun langileek, erresidentzietako langileek edota ospitaleetako garbitzaileek beren burua babesteko materiala falta dutela salatzea? Nola da posible milaka langilek beren lantokietara joan behar izatea osasun larrialdi bat jasaten ari garen unean? Nola da posible erresidentzietan kutsatu diren langileak ez dituztela ordezkatu salatzea? Hori da salatu behar duguna: langileok, eta bereziki, emakumeok* azpiratzen gaituen sistema kapitalista patriarkala. Eta ez, hala sinetsarazi nahi badigute ere, txakurra paseatzen dabilen bizilaguna. Ez gaitezen sistemaren konplize izan.

Krisi honetan berriro ikusi

dugu bizitza sostengatzen duten lanak, beharrezkoenak, direla gutxien baloratuenak, feminizatuenak. Ez da kasualitatea. Horiek dira gaur lehen lerrora ekarri nahi ditugunak: erresidentzietako langileak, osasun langileak, etxez etxeko langileak, etxeko langileak –sektore honetan, gainera, gehienak are egoera zaurgarriagoan daude Atzeritarren Legearengatik; asko eta asko kontratu gabe, eta beraz, diru laguntzetatik kanpo–.

Biodibertsitatearentzat jasangarria ez den sistema honetan, lurralari arnasa ematen dioten nekazariak ere gogoratu nahi ditugu; gure esker ona nekazariei, elikagai horiek erein eta zaintzeagatik, eta herriko merkatariei, egunero-egunero ateak ireki, eta elikagai horiek eskura jartzeagatik. Krisi honekin batera, hausnar dezagun zer, noiz eta nondik erosten dugun, eta ez dezagun ahaztu hau guztia amaitzen denean. Doakizuela, zuei guztioi, bertso bidez Matrakako kideon indarra, miresmena eta esker ona.

Krisi honek agerian utzi du elkar zaintzeko beharra, sareak sortzekoa, komunitatea eraikitzekoa. Krisi honek agerian utzi du mugimendu feminista etengabe aldarrikatzen ari dena: bizitza bizigarriak behar ditugu, pertsonon eta naturaren zaintza erdigunean jarriko duen sistema. Hau guztia amaitzen denean, krisi ekonomiko latza etorriko dela begi bistakoa da, eta ikusten ari gara dagoneko nori ordainarazi nahiko dioten. Presta gaitezen borrokarako, kaleak hartzeko, zaintza erdigunean jarriko duen sistema bat sortzeko.

Matraka talde feminista Anoeta

BIDEOA

Taldeak osatu dituen bertsoak ikusgai daude honako helbidean:
www.ataria.eus/komunitatea/gutunak

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 63,5mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 60 € • Harpidedunentzat 30 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

Lur gaineko tiraldiek itxaron beharko dute

Getxon jokatzekoa zen Lur Gaineko Munduko Sokatira Txapelketa atzeratu egin dute; bertan parte hartzeko asmoa zuen Ibarra Sokatira Taldeak

Imanol Garcia Landa Ibarra

Lur Gaineko Munduko Sokatira Txapelketa jokatzekoa zen Getxon (Bizkaia) irailaren 16tik 20ra, baina antolatzaileek atzeratu egin dute datorren urtera arte. Ibarra Sokatira Taldeak parte hartzeko asmoa zuen, Ainara Otamendi taldekideak azaldu duenez: «Gu goma gainean aritzen gara, eta talde bezala ez dugu esango sekulako ezbeharrak izan denik. Baina ilusioa bagenuen parte hartzeko, eta Euskal Herrian izanik txapelketa, probatzeko gogoia genuen».

Goma gaineko Munduko Txapelketan parte hartu zuten otsaila bukaera aldera, eta hortik bi astetara saiakera bat egin zuten zenbait sokatiralari lur gaineko sasoiari begira. «Justu aste horretan ezarri zuten itxialdia eta horretan geratu zen, nolabait entrenamendu bakarria eginez», esan du Otamendik. «Azkenean, egoera ikusita denok onartutzat eman dugu lur gaineko munduko txapelketa atzeratzearena».

Zehazki 2021eko irailaren 15etik 19ra egingo da Munduko Txapelketa, Getxon ere. Atzeratzeko erabakia, baina, ez da erraza izan. Hemendik bi urtetara eta lau urtetara munduko txapelketak non egingo ziren zehaztuta zegoen, eta Getxoko antolatzaileek besteekin hitz egin behar izan dute atzeratzea adosteko. «Ez da lan erraza izan erabakia adostea, eta urtebete atzeratzea lortu dute eta ez da gutxi», azaldu du Otamendik. «Lur gaineko modalitatean nazio gehiagok parte hartzen dute goma gainean baino, eta Munduko Txapelketa ekitaldi garrantzitsua izaten da». Oraindik ez dute taldean hitz egin datorren urteko parte hartzeari buruz.

Ibarra modalitate mistoan parte hartzea pentsatzen zuen munduko txapelketan, lau muti-

lek eta lau neskek osatutako taldearekin. Lehenbizi Lur Gaineko Euskal Herriko Txapelketan parte hartzeko asmoa zuten, bai modalitate mistoan eta baita gizonezkoen pisu txikian. «Nesken talderik ez dago lur gainean, baina neskek mutilen taldean tira dezakete», zehaztu du Otamendik. Aurreko asteburuan hastekoa zen Euskal Herrikoa, baina hori ere bertan behera geratu da, eta oraindik federaziotik ez da oharrik zabaldu aurten egingo den ala ez.

«Ilusioa bagenuen Munduko Txapelketan parte hartzeko; probatzeko gogoia genuen»

«Sokatirako modalitate batean ondo ibiltzeak ez du esan nahi bestean ere ondo ariko zarenik»

**AINARA OTAMENDI
IBARRA SOKATIRA TALDEKO KIDEA**

Aurretik Ibarra Sokatira Taldeko gizonezkoek parte hartu izan dute lur gaineko Euskal Herriko Txapelketan, baina apustu handirik egin gabe. Egun taldean dauden emakumezkoentzat lehen aldia izango zen lur gainean modalitatean. «Munduko Txapelketara joan baino lehen lehian aritu nahi genuen, eta horregatik Euskal Herrikoan parte hartzeko asmoa genuen», esan du Otamendik. Munduko txapelketara talde bezala joateko asmoa zuten. Izan ere, talde bezala eta selekzio bezala lehiatzeko aukera izaten da. Selektzio moduan joateko eskubidea Euskal Herriko Txapelketa irabazi duen taldeak du. «Ez dut uste aukera izango genuenik Euskal Herria ordezkatzeko, txapelketa irabaztea zaila izango litzatekeelako», gaineratu du Ibarra sokatira-

lariak. «Hori bai, Euskal Selektzio bezala lehiatzean talde batek aukera izaten du beste talde batzuetako sokatiralariak gonbidatzeko».

Konfinamendua ezarri aurretik ez zuten lur gainerako taldea oraindik zehaztuta. «Egin genuen saio horretan neskek bakarrik izan ginen. Probatzea zen asmoa. Mutil batzuk arituta daude, eta uste dut nesken aldetik ni bakarrik aritu naizela lur gainean», esan du Otamendik. «Beraz, denentzako berri samarra zen lur gainean lehiatzea, eta ez genuen oraindik zehaztuta ere taldea».

Alde handia dago goma gainean aritzetik lur gainean aritzera. «Teknikoki oso ezberdina da. Goman teknika gehiago dago. Tiratzen dizuetenean irrist egiteko aukera handia dago, beraz teknikarekin blokeatzea bilatzen duzu. Lur gainean teknika baino indarra baliatzen duzu: lurrean zuloak egiten dira, eta indarra- ren poderioz jokatzeko duzu asko. Teknika behar da, baina indarra- rekin jokatzeko duzu tirada eusteko. Modalitate batean ondo ibiltzeak ez du esan nahi bestean ere ondo ariko zarenik», laburbildu du Otamendik.

DENBORALDI «OSO POSITIBOA»

Goma gaineko denboraldiari ez dio eragin konfinamenduak. «Sekulako zortea izan dugu sei hilabetez entrenatzen aritu eta txapelketa guztietan parte hartu ahal izatearekin», esan du Otamendik. Munduko Txapelketa jokatu eta bi astetara etorri zen konfinamendua. «Askok izorratu-ko zigun, noski, Munduko Txapelketara ez joateak».

Aurtengo denboraldiaren inguruan, hain justu, balantze «oso positiboa» egin du Otamendik. «Batetik kontuan izan behar da nesken eta mutilen egoera ezberdina izan dela. Neskek talde nahiko berria eta gaztea izan



Ibarra Sokatira Taldeko Ereñi Oiarbide, etxean entrenatzen. ATARIA



Orain urte batzuk Ibarra taldeko gizonezkoak lur gaineko lehian. ATARIA

dugu, taldea bera osatuko genuen beldurrez ere izan gara. Baina jende berria ilusio handiarekin etorri da eta denboraldia bera askorentzako nobedadea izan da, eta Munduko Txapelketa ere lehen aldia izan da askorentzat. Eta horiek gozatu egin dute eta sekulako esperientzia izan da».

Bestalde, gizonezkoek «helburu oso indartsuak» jarri zituzten, eta txapela lortu zuten euskal Herrikoan eta domina Munduko Txapelketan. «Ikusita mundukoan ze taldek eta ze mailakoez parte hartu zuten, kirol ikuspegitik egindako esfortzuak sari handia izan du», zehaztu du Otamendik, eta gaineratu: «Taldea bakoitzean, beraz, egoera oso ezberdinak bizi izan ditugu, baina bietan denboraldia oso positiboa izan da».

Goma gaineko txapelketak azaro inguruan hasten dira, eta Ibarra Sokatira Taldekoak irailean hasten dira sokarekin entre-

namenduak egiten. Otsaila edo martxora arte irauten du denboraldiak, eta hortik aurrera kirolari bakoitzak aritu ohi da sasoiari eusten. «Lagun talde bat ere bagara, eta tarteka elkartu izan gara sokarekin aritzeko, edota elkarrekin mendira joateko edo korrika egiteko, baina ez da denboraldian zehar izaten dugun antolakuntza», esan du Otamendik.

Egoera honek, beraz, talde bezala duten ohiko dinamikari ez dio hainbeste eragiten. «Nesken kasuan, taldekide bat ari da elkarbanatzen egunero egiteko ariketa batzuk, eta hainbat taldekide ari dira hori erabiltzen», esan du Otamendik. Denboraldi honetan taldeak ez du prestatzaile fisikorik izan. «Denboraldi bakoitzean jartzen ditugun helburuen eta gauden jendearen arabera erabakitzen da hori», zehaztu du. Oraingoan, beraz, bakoitzak etxean dituen baliabideekin moldatzen ari dira lan fisikoa egiteko.



ASTEAZKENA, 2020KO APIRILAK 29
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:




Ohitura aldaketa etxetik hasten delako

Hizkuntza ohitura aldatzeko eta Euskaraldirako prestatzeko Etxealdetik Euskaraldira ekimena ari dira burutzen egunotan

Erredakzioa

Ostiralean ekin zioten Euskaraldira antolatzaileek Etxealdetik Euskaraldira ekimenari. Horren bitartez, eta urte bukaeran izango den Euskaraldiari begira, hizkuntzarekin egunerokoan dugun ohitura aldatzea bultzatu nahi dute, euskarari leku gehiago eginez.

Bada, zabaldu dituzten bideoen bitartez, gure hartu-emanetan ea euskaraz hitz egiteko ohitura dugun aztertzeke proposamena luzatu dute; euskaraz jolas egitera animatu dute, pintxopotea online eta euskaraz egitera, otorduan euskara erabiltzera, garbitzaileak, osasun langileak,



Esker mezuak euskaraz egitera animatzen du bideo pilula batek. ATARIA



saltzaileak... horiei guztiei esker on mezuak euskaraz bidaltzera, edota erosketak egitean lehen hitza euskaraz egitera gonbidatu dute. Bideo pilulekin bihar arte jarraituko dute, eta horiek guztiak egunerokoan kontuan izatea proposatzen dute. Halaber, argazkiak eta bideoak egiteko gonbita ere luzatu dute eta Etxealditikeuskaraldira traola jartzeko esan dute partekatzerakoan. Datorren astean egingo dute ekimena borobiltzeko azken proposamena.

ATARIA IRRATIA

09:00-13:00. Baserritik lehen sektoreari buruzko saioa, *Postalak* bi-daia tarte, *Patxadaz* elkarriketa tarte, *Kantazgora* eskualdeko musikarien proposamenekin osatutako musika saioa eta *Entzuteko* jaiok musika saioa.

16:00. Zebrabidea. Arrosa sareko magazina.

19:00. Ahoz Aho Ipuinak ez dira geldituko

20:00. Playback Ataria. Musika saioa, Adriana Gaultierrekin.

21:00. Mingaina Txulora. Erotikari buruzko saioa, Jon Imanol Etxabe sexologoarekin.

28 KANALA

11:00. Etxean bai... Geldirik ez! (Itsaso Ugartemendia)

11:30. Gaurkoan Tolosalde

12:00. Etxean bai... Geldirik ez! (Sonia Tapia eta Amañur Luluaga)

12:30. 1, 2, 3 hemen da Miru!

16:00. Elkano

17:30. Gaurkoan Tolosalde

21:00. Gartxot

23:30. Gaurkoan Tolosalde

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Cecilia Bronte Posada. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Larramendi kalea, 6. 943 67 51 18.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Antzeko giroarekin segiko dugu. Goizean, hego-mendebaldeko haizearekin giro lasaia eta nahiko epela izango dugu, non tenperatura maximoa igo egingo den eta 19-20 gradu artean joko duen goia. Arratsaldeko lehen orduetan haizeak ipar-mendebaldera egingo du, zerua estali egingo da eta euri pixka bat izango dugu. Euri zaparrada ahulak izango dira eta tartekatua, baina berriz ere nahikoa izango da arratsalde trakesteke.

Bihar. Giroa lasaitu ezinik ibiliko da egun osoan zehar. Goiza berriz ere lasaia izango da, hodeiak eta ostarteak tartekatuz eta eguraldi nahiko argiarekin. Arratsaldeko lehen orduetik aurrera, ordea, berriz ere hodeitza ugartu eta euri pixka bat izango dugu. Euria orokorrean zaparrada ahul modura botako du, baina puntualki zaparrada mardulagoren bat ere izango da. Haizeak goizean hego-mendebaldetik joko du, arratsaldean ipar-mendebaldera aldatuz eta tenperatura maximoak berriro ere 19-20 gradu artean joko du gola.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

ZORION AGURRAK



ZORIONAK!

Gaurko Eman bostekoa jolaseko seigarren galderaren erantzuna jakin nahi dugu: Hamaiketako noiz?

ZORION AGURRAK

Urtebetzeak,
urrezko ezteiak,
ezkontzak,
jaioberriak...

Prezioa

15,50€
31€
45€
51€

Atarikideek

12€
23€
33€
38€

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

943 65 56 95 · ataria@ataria.eus · San Esteban 20, Tolosa